

Elgoibar - 1260. zenb.
XXIX urtea - 2022-10-14



TOKIKOM

BARREN

Euskalduntasunerako bidea

Jon Maia



Zure diruak balioa dauka

www.etxegain.com

etxegain

IK11

Bizigunea parkean



*3 logela **180.000€**
-tik aurrera



*Logela 1, 5. solairuan
135.000€-tik aurrera



*2 logela + 2
bainugela, 5. solairuan,
160.000€-tik
aurrera

*BEZ GABE



- ETXEBIZITZA GUZTIEK BISTA GARBIAK DITUZTE ETA TERRAZAK ARRATSALDEKO EGUZKIARI BEGIRA DAUDE.
- SUKALDEAK, HORNITUTA DAUDE (ETXETRESNA ETA ALTZARIEKIN)
- ERABAT HORNITUTAKO ARMAIRUAK (BARRUALDE ETA AURREALDEAK)
- KOMUN NAGUSIA, ERABAT HORNITUTA, KONKETA AZPIKO ALTZARIA ETA DUTXA EDO BAINUONTZIKO MANPARAREKIN

IK11k GEHIAGO EMATEN DIZU, LOGELA GEHIAGO, ALTUERA HANDIAGOA, BISTA GEHIAGO, TERRAZA GEHIAGO,... GUTXIAGOREKIN

Guztientzako terrazak

Loresleak ez diren irudi birnaltak.



ELGOIBAR

grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:
San Francisco, 32 • 20870 ELGOIBAR

943 31 66 11
650 44 21 59

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

Asko maitte zaittut, amama



"Asko ikasi dut zure jakinduriari eta izaera ausartari eta trebeari esker"

Zenbat kasualitate batera. Ama eta ahizpa joan ziren egun berean agur esan, eta aste berean, BARRENEKO artikulua idaztea bilobari tokatu izana. Baina kasualitateak ere izaten dira espero ez ditugunean, eta batzuetan ez dira egoera errazak izaten.

Zaila izaten da maitasuna adieraztea ere, eta are zailagoa familiartean denean. Heriotza onartzea ere ez da erraza izaten, eta are zailagoa izan ohi da hildakoa gertukoa dugunean. "Denborak esan dezala", baina ueña iristen denean, onartu nahi ez. Orduan azaleratzen dira aspaldian entzun gabeko hitzak, negarrak, denetariko emozioak...

Oroitzapen asko bat-batean: sukaldatutako flan goxoa elkarrekin jaten genuen momentua, inguruko jendea laguntzeko zenuen gaitasun eta maitasun izugarria, trikimailuak sortzeko zenuen jakinduria, gaixotasunak zail jarri arren hari aurre egiteko zenuen indarra, gerraosteko pobrezian eta gatazka politikoan unean aurre egindako egoeren berri ematen zenigunean, haurren heriotza gertutik bizi izan arren egoerari buelta emateko izan zenuen kemena, Gabonetan egongelako mahaian abesten igarotako orduak, lorak zaintzeko zenuen trebezia, erruberdun aulkian egindako lasterketak eta beste hainbeste kontu.

Egia esan, inpotentzia asko sortzen zitzaidan mina zenuen momentuetan laguntzen saiatu eta zure nahiak asetzera lortzen ez genuenean. Badakit batzuetan dena ez dagoela gure esku eta gu bertan egotearekin ere nahikoa zenuela, gertu sentituz, maitasuna emanez, bakarrik ez zaudela jakinez. Izan ere ez da erraza izan, baina bitzitakoarekin ere ikasi dugu, eta eskerrak, aukera hori izan dugula behintzat.

Asko ikasi dut zure jakinduriari eta zure izaera ausartari eta trebeari esker, eta harrotasunez beti esango dut nire amama izan zinela. Ai, amama eta aittitta betirako izango balira! Baina ez da horrela, beraz, aprobetxatu dezagun bizitza, berandu izan baino lehen. Besterik gabe, eskerrik asko danagatik, amama Bittori; beti maitteko zaittut!

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Pozik, gustura eta hunkituta gaude!

Urteetan bakarka jardun dugu hainbat familiak gure seme-alaben egoera ezagutzuz, beharrez jabetuz... 2022an elkartu eta indarrak batzen eta elkar ulertzen hasi garenera arte.

Dislexia zer den, zer sentiarazten duen, zein zailtasun izaten dituzten gure haur eta gazteek eskoletan, zer behar dituzten... elkarrekin lantzeko helburuz hasi ginen batzen Gipuzkoako Dislexia Elkartearen eskutik Dislegi Debarrena sortu arte.

Ibilbide honetan bidelagun asko izan ditugu urriaren 8an, Dislexiaren Nazioarteko Egunean, taldea Elgoibarren ezagutzera ematera iritsi arte.

Pozik gaude geure lanarekin, pozik sortu dugun lantaldearekin eta pozik eta oso eskertuta gure proiektu hau aurrera eramateko ezinbesteko laguntza eman diguten guztiekin, bai Elgoibarko Udalarekin eta Danobatgroupekin, euren laguntza ezinbestekoa izan baita, eta baita Dislexiaren inguruko erakusketa aurrera eramaten lagundu digun BCBLrekin; nazioarteko egunean haurrei aurpegiak dotore margotzen lagundu digun Raquel Delaradarekin; Gotzon Garate Udal Liburutegikoekin elkarpenarekin; Urban Sketching teknika bidez margotzen erakutsi digun Ibon

Serranorekin; gure lagun Olaia Revertekin, irakurketa errazaren inguruko informazioa zabaltzen lagundu digunarekin; eta baita poliki-poliki Dislexiaren ezagutza eta ikasleek dituzten beharrak aurrera eramaten laguntzen diguten eskolekin eta honen berri ematen lagundu diguten komunikabideekin, eta baita Sanloko arduradunekin, eman diguten laguntzagatik..

Gipuzkoako Dislexia Elkarteko kideekin ere esker oneko gara, elkarlanean jarduteko aukerak gure lana asko errazten duelako.

Eskerrik asko denoi, eta nola ez Dislexiaren Nazioarteko Egunean Dislexiaren berri handiago izateko plazara hurbildu zineten guztioi, eta zer esanik ez, "Disdir egiten" lagundu diguzuen guztioi.

Dislexia Debarreneneko lantaldea

2022

LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?

Aurten bai! Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an** Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera? Animatzen bazara, esan, ahal duzun azkarren, tonbolarako erregalua emateko prest zaudela. **Azaroaren 25a** izango da erantzuteko azken eguna. Eskerrik asko!

Harremanetarako: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Elgoibarren, momentuz, 72 entitatek eman dute izena, eta entitate horietan euskaraz lasai jarduteko 156 arigune sortu dira.

- Udalaren ardurapekoak eta bestelako entitate publikoak: 6
- Hezkuntzari lotutakoak: 7
- Elkarte eta gizarte mugimenduak: 15
- Merkataritza eta ostalaritza: 39
- Enpresak eta industria sektorea: 5

Urriaren 31n amaituko da entitateek izena emateko epea.

Informazioa eta izena emateko: euskaraldia@elgoibar.eus / 943 741 626



EUSKARALDIA ariketa egingo dugu gure eguneroko hizkuntza ohituretan euskaraz gehiago egin nahi dugulako.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus

📞 943 744 112

📞 688 634 044



Ermuaranbide kalean alde bateko espaloia bakarrik garbitzen dute:

"Ermuaranbide kalean erreka aldeko espaloia garbitzen dute, baina beste aldekoa zikin-zikin eginda dago. Eskubikoa garbitzen duten moduan, ezker aldekoa garbitzea ere eskertuko genuke".



Oinezkoen pasabide asko ez dira irisgarriak:

"Udalak irisgarritasun plana egin zuen, baina ez zituen bete han jasotakoak, eta oraindik oinezkoentzako hainbat zebrabidetan oztopo arkitektonikoak daude. Kiroldegi aurreko zebrabide honetan esaterako metalezko bi zutoin daude, eta horrek irisgarritasunari traba egiten dio. Legeak betetzeko dira".



Pedro Migel Urruzuno kalean zebrabide bat behar da:

"Pedro Migel Urruzuno kalean zebrabide bat behar da, Loritoneko aldapatik San Rokera igotzeko aldaparako tarte horretan. Berez kale horretan oinezkoek dute lehentasuna, eta horren arabera, agian ez litzateke zebrabiderik beharko, baina errealitateak erakusten du zebrabiderik ez badago, autoak ez direla gelditzen".



2023ko tasa eta zerga guztiak bere horretan lagatzea erabaki du Mendaroko Udalak aho batez

Aho batez onartu zuen Mendaroko Udalak datorren urterako tasa eta zerga guztiak jaso gabe lagatzea, iraileko azken osoko bilkuran. Tasak eta zergak bere horretan lagatzeaz gain, hobariak indartzea ere onartu zuten, bereziki energia eraginkortasuna, jasangarritasuna eta familiei laguntzera bideratutakoak. Orain, 30 egunez, jendaurrean egongo da Udalbatzaren osoko bilkurak onartutako 2023ko Ordenantza Fiskalen proposamena herritarrek beren iradokizunak egin ditzaten. Udaletik zabalduzako prentsa oharrean alkateak dio herritarrei laguntzeko hartutako erabakia izan dela, familien ekonomiari "arnas pixkat emateko" hartutakoa. "Udalaren finantza egoera ona da eta horrek ahalbidetzen digu neurriok hartzea. Zergak eta tasak mantentzeaz prezioen igoerari eta krisi energetikoari aurre egiten lagunduko du, familien gaineko eragin ekonomikoa murriztuz", azpimarratu du.

Txankakuak eman du Stock azokaren harira egindako zozketaren berri



Stock Kale Azoka egin zuten barikuan eta zapatuan Elgoibarren Txankakua merkatari elkarteko 25 bat merkatari. Atarietara atera zituzten produktuak, merketuta. Stock kale azokan egindako erosketak bakoitzeko txartel bana jaso zuten bezeroek, zozketan parte hartzeko. 400 euro banatuko ditu saritan Txankakuak (100 euroko lau erosketak bono) eta astelehenean jakinarazi zituen irabazleen izenak: Sonia Rodriguez, Mila Fernandez, Lorea Lariz eta Kontxi Fernandez de Jauregi.

Lursailen mugak auzokideekin adosteko eskatu die Mendaroko Udalak jabeei, topografiatzea errazteko

Landa-lurzoruko lursailak mugatzeko lanetan dihardu Mendaroko Udalak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune Departamenduak diruz lagundutako proiektua da eta 155 lursail mugatuko dituzte aurten, 637 hektarea guztira. Geograma enpresa ari da egiteko horretan eta aurtengorako 12.826,00 euroko aurrekontua du (BEZ barne). Mugetan egon daitezkeen akatsak argitzea eta zuzentzea dute helburu, eta mugei eta mugarriei GPS koordinatuak ematea. Topografiatu nahi dituzten lur horiek, baina, txatalka, 80 bat lurjabe baino gehiagorenak dira eta proiektua gauzatzeko horien laguntza ezinbestekoa dela zabaldu dute Udaletik. Aurten 3., 6. eta 7. industrialdeak



topografiatu nahi dituzte eta datorren urtean 8., 9. eta 10. industrialdeak. Horregatik Mendaroko 3., 6. eta 7. industrialdeetako landa-lursailen jabe guztiei gutun bana bidali diete, bilera batera deitzeko. Lanok bukatuta, mugarrien mugak markatuta eta koordinatuak dituzten planoak emango zaizkie titularrei, eta, behar izanez gero, katastroko mugak zuzenduko dituzte.

%25eko deskontuak egongo dira udazkeneko 'Elgoibar Bizi-Bizixa' bono kanpainan

Udazkeneko Elgoibar Bizi-Bizixa bono kanpaina jarriko du martxan Udalak, eta merkatariek urriaren 25era arteko epea dute egitasmoan izena emateko. 2022ko beste kanpainaren batean parte hartu dutenek ez dute izena berriz eman behar, baina parte hartu nahi ez badute, hori adierazi egin behar dute. Interesatuak www.elgoibar.eus webgunean eman dezakete izena.

Udalak 25.000 euro inbertituko ditu kanpaina honetan. 3.300 merkataritza-bonu

aterako dituzte, eta modu ekitatiboan banatuko dituzte, izena ematen duten establezimenduen artean. Herritarrek %25eko deskontua izango dute egindako erosketetan, eta gutxienez 5 eurokoa izan behar da, eta 60koa gehienez. Aurreikuspenen arabera, bonuak azaro hasieran egongo dira eskuragarri, eta azaroaren 30era arte trukatu ahal izango dira, betiere dendak egun horretara arte bonuak baditu eta merkataritza-establezimenduetan erabili ahal badira.

Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburu Bingen Zupiriak hitzaldia emango du Elgoibarren, hilaren 18an



Kultura eta hizkuntza politika eredu izenburuko hitzaldia emango du Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburu Bingen Zupiriak martitzenean, hilaren 18an, Aita Agirre kulturaguneko areto nagusian, 18:30ean. Elgoibarko EAJK antolatu du hitzaldia. Aurrez, Jokin Bildarratz eta Arantxa Tapia sailburuak, Maite Peña Gipuzkoako Gizarte Politiketako diputatua eta Jorge Arevalo Lanbide Heziketako sailburuordea ekarri dituzte.

56 ikaslek parte hartuko dute Elgoibarren Robotika ikastaroan



6-9 urte arteko 56 ikaslek hartuko dute parte urritik maiatzera bitartean egingo den Robotika ikastaroan, lau taldetan banatuta: bat eguaztenetan eta hiru barikuetan. IMHn egiten ari dira kurtsoa, eta bederatzigarren urtea da Elgoibarko Udalak Robotika ikastaroa antolatzen duena. Ikastaroa IMHn izango da, eta ikasleek robotak, bideo-jokoak edo asmakizun teknologikoak sortzeko, diseinatzeko, eraikitzeko eta programatzeko aukera izango dute.

44 nerabek eman dute izena Bizilabe egitasmoan

Hasi da Elgoibarko Udalak Elhuyarrekin batera sustatutako Bizilabe Elgoibar aisialdi-eskaintza. Laugarren urtez, herriko gazteen artean zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa eta motibazioa, ekintzailetasuna eta sormena bultzatuko dituzte Bizilaben ikasturtean zehar. Urriaren 3an hasi zuten ikasturtea eta momentuan 10 eta 14 urte bitarteko 44 gazte daude izena emanda, baina oraindik badago izena emateko aukera. Eskolak Makina-erremintaren museoan izango dira, astelehehen eta eguenetan: Lehen Hezkuntzako 5-6 mailatakoek, 17:00-18:30era, eta DBH 1-2 mailetakoe, 18:30etik 20:00etara. Precio arrunta, hilean, 18 eurokoa izango da, baina familia ugariak, guraso bakarreko familiek eta langabezian dauden pertsonen kuota hamar



eurokoa izango da hilean. Era berean, familia ugariak izan gabe, bigarren seme-alaba baten izen-emateagatik ere hamar euro ordaindu beharko dira, eta gizarte izaerako laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten familiek, lau euro.

Alderdiko barne hauteskundeetara aurkeztu da Evaristo Rodriguez Elgoibarren zerrendaburu izateko



2019az geroztik Ahal Dugu Podemosen zinegotzi da Elgoibarko Udalean eta astelehenean alderdiko barne hauteskundeetara aurkeztu zen berriro maiatzean egingo diren udal hauteskundeetan Elgoibarren zerrendaburu izateko. Isabel Fernandez Pejenaute (Eibar), Miguel Angel Tolosa (Lasarte - Oria) eta Jose Maria Iparragirre (Andoain) ere aurkeztu ziren alderdiaren primarioetara eta militanteek berretsi beharko dituzte orain hautagaitzok. Industria teknikaria da ofizioz Evaristo Rodriguez eta 56 urte ditu. Nekazari zamorarren semea da, eta Leizarpe espeleologia taldeko kide. Seme-alabentzat Elgoibar hobea izateko lanean jarraitzeko konpromisoa duela azpimarratu du.

Udan gora egin du langabeziak Elgoibarren eta Mendaron

Ekainean, Elgoibarren, 441 langabe (%8,13an) zeuden erregistratuta enplegu bulegoetan eta Mendaron, 68 (%6,69). Lau hilabete geroago, 472 langabe (%8,71) zenbatu dituzte Elgoibarren eta 85 (%8,37) Mendaron. Hau da, 31 langabe gehiago Elgoibarren eta 17 gehiago Mendaron. Mendarokoa da deigarriena, uda hasieratik bukaerara bi puntu egin baititu gora langabezia-tasak. Aldiz, duela urtebeteko datuei erreparatuz gero, hobera egin dute datuek, 2021eko irailean 501 langabe (%9,24) baitzeuden Elgoibarren eta aurten 472 langabe (%8,71). Hau da, 0,5 puntu egin du behera duela urtebeteko tasarekin alderatuta. Mendaron ez da apenas aldaketarik izan duela urtebeteko datuekin alderatuta: 86 langabe zeuden 2021eko irailean eta 85 orain.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartetik jakinarazi dute gaur, ostirala, egingo dituztela odol ateratzeak, Elgoibarren, 16:30etik 20:10era Jubilatuen egoitzan. Ordua eskatzeko 623 328 408 telefono zenbakira deitu behar da, 15:00etatik 20:00etara, edo whatsapp idatzi.

Anbulatorioko larrialdi zerbitzua berreskuratzeko manifestaziora deitu dute urriaren 29rako



Manifestazioa antolatu du 24/7 plataformak urriaren 29rako, ambulatorioko larrialdi zerbitzuak berreskuratzeko helburuarekin. Martitzenean egin zuten prentsaurrekoan azaldu zituzten deialdi honen arrazoiak, eta herritarrei dei egin zieten mobilizazioetan parte hartzera. Plataformako kideek 2010era arteko Elgoibarko anbulatorioak zeukan zerbitzua berreskuratu nahi dute, hau da, anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz irekitzea. 2010etik izandako murrizketen berri eman zuten: "Asteburuetako larrialdi zerbitzua kendu zuten lehenik, eta gero

anbulatorioa 20:00etan ixten hasi ziren. Pandemia iritsi zenean, 17:00etara aurreratu zuten itxiera ordua, behin-behineko neurria zela esanez, baina gezurra zen, berdin jarraitzen dugu". Gogoratu zuten 5.501 sinadura batu zituztela ambulatorioko larrialdi zerbitzua berreskuratzearen alde, eta Legebiltzarrean aurkeztu zituztenetik zazpi hilabete pasa ostean, erantzunik gabe jarraitzen dutela salatu zuten. Egoera honetan, Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak Elgoibarrerako anbulatorio berria iragarri izana ere salatu zuten, esanez, anbulatorioa zabalik nahi dutela.

55 lagun elkartu dira bertako haziak biltzeko egindako deialdira

Hemen bertako haziak batzeko mendi-irteera antolatu zuten Baso Biziak-ek eta Morkaiko Mendizale Elkarteak elkarlanean joan zen astebururako, eta 55 lagun elkartu ziren deialdira. Kalegoen plazatik abiatu ziren mendira, San Roke ingurura, eta han hazien inguruko azalpenak eman zizkieten ibilaldira batutakoei: zer motatako haziak jaso behar zituzten eta zein baldintzatan zeudenak. San Rokeetik Berazetarantz joan ziren

gero, eta handik, Goenaga baserri paretik, Sallobenterantz, basoan barrena haziak bilduz. 4 bat orduko ibilaldia egin zuten eta skate parkean bukatu zuten. Han, haur bakoitzari hazi bana eman zioten tetabrik batean sartuta, etxera eraman zezaten. Gainerako haziekin hazitegi bat egitekoa du Baso Biziak-ek, ondoren jabeek lagatako lursailetan edo formula ezberdinen bidez erositako lursailetan landatzeko landareak.



Dislexia ezagutzera eman dute Kalegoen plazan



Dislexiaren Nazioarteko Eguna izan zen zapatuan, eta Dislegi Debabarrena elkarteko kideak kalera irten ziren dislexia herritarrei ezagutzera emateko. Irakurketari eta idazketari eragiten dion nahasmendua da bereziki, eta ikasteko orduan zailtasunak sortzen ditu. Kalegoen plazan jarri zuten informazio mahaia, eta horri laguntzeko zenbait ekintza antolatu zituzten. Besteak beste, irakurketa errazeko tailerra eman zuen Olaia Reverték; Ibon Serranok urban sketching saioa eman zuen, eta gerturatu ziren umeeak aurpegia margotzeko aukera ere izan zuten. Dislegi elkarteko kideek eskerrak eman dizkiete zapatuko ospakizuna antolatzen lagundu dieten eragile guztiei, bai eta ekintzetan parte hartu zuten herritarrei ere.

Morkaikoko jaiotza konpondu du Arturo Andrade eskultoreak



Morkaiko tontorrean dagoen brontzezko jaiotzako Ama Birjinaren irudia apurtu zuten uztaillean, harrika, eta Ama Birjinaren irudia bere lekutik aterata eta San Joserena kili-kolo gelditu ziren. Jabier Uzuriagak topatu zituen kaltetutako irudiak, eta Morkaikokoei eman zizkien. Mendi taldekoek Arturo Andrade eskultoreari eman zizkioten, hark konpon zitzaizkien, izan ere, Andrade berak egin zuen jaiotza hori, eta 2004tik dago Morkaiko tontorrean. Andradek torloju batzuk gehitu dizkio San Joseren irudiari eta baita erretxina ere, bere lekura lehen baino sendoago itsasteko. Borondatez egin ditu konponketa lanak eta eskertu diote Morkaikotik. Era berean esker on hitzak izan dituzte Jabier Uzuriagarentzat ere kaltetutako irudiak jaso eta abixua emateagatik. Ez da Morkaikoko jaiotzari eraso dioten estreinako aldia. 2020ko abuztu inguruan San Joseren irudia desagertu zen, eta 2021eko urtarrilean ordezkatu zuten.

Eoliken kontra batu dira Elosun



Gipuzkoako Mendiak Aske plataformaren baitan elkartu dira hainbat eragile, tartean Elgoibarko Karakate Bizirik, eta eguaztenean protesta ekitaldia egin zuten Elosun, inguruko mendietan jarri nahi dituzten eoliken kontra. Elgoibartarrak ere izan ziren bertan. Batzuk oinez joan ziren, beste batzuk bizikletan eta autobusez joan zenik ere izan zen.



*“El euskera
tiene que estar
en el centro de
todas las políticas
de integración”*

JON MAIA

Bertsolari

✍ Ainhoa Andonegi / 🗣 Asier Orbea

'Desde Extremadura al euskera' fue el título bajo el que el bertsolari Jon Maia (Urretxu, 1972) trató de explicar cómo siendo hijo de emigrantes ha llegado a ser lo que es hoy en día. Hasta los 25 años ocultó los orígenes de su padre y su madre, procedentes de Zamora y Extremadura. Fue en 1997 cuando reconoció su identidad ante diez mil personas en el Velódromo de Anoeta y con las cámaras de ETB en directo durante la final del campeonato bertsolaris de Euskal Herria. En ese momento sus miedos y complejos se convirtieron en orgullo, y comprendió que desde su posición podía hablar en dos direcciones, a los euskaldunes y a los que no entendían el euskera, para contribuir al acercamiento de ambas comunidades. Euskaraldia Elgoibar ha querido transmitir una historia que viven muchas personas a través del relato real de Jon Maia, y lo quiso hacer en castellano, para que el mensaje calara hondo. La realidad nos enseñó que todavía sigue habiendo dos mundos, ya que el público congregado en Aita Agirre era en su totalidad euskaldun. Aún así, BARREN astekaria, haciendo una excepción, ha recogido la historia en castellano, con el fin de que los no euskaldunes puedan hacer suya también la historia de Maia.

'Desde Extremadura al Euskera'. ¿Cuál es el motivo de esta charla?

Llegó un momento en mi vida en el que pensé que tenía una posición apropiada para poder hablar en dos direcciones, por una parte a la gente euskaldun y por otra a los no euskaldunes, porque conocía las dos culturas y los dos mundos. Por una parte, mi familia es emigrante; proviene de Extremadura y Zamora, y por otra parte, yo soy bertsolari y he vivido siempre en el ámbito del euskera y de la cultura euskaldun. Tuve un proceso personal hasta que conseguí salir del armario y decir en el mundo euskaldun que soy hijo de emigrantes. Entonces no había bertsolaris que fueran hijos de emigrantes, y en aquella época todo era blanco o negro. Una vez que superé ese complejo sobre mi identidad y de más, empecé a predicar toda esta historia.

Te avergonzabas de tus apellidos, te sentías maqueto, belarrimotz... ¿Qué les dirías a esos que hoy en día sienten lo mismo que sentías tú en tu juventud?

Por una parte tenemos la emigración de tiempos de Franco, y por otra parte la emigración actual, y aunque son muy diferentes, hay cosas que se repiten en la vida de un emigrante y también en la acogida. Ya no estamos en una dictadura militar, pero aún nos falta mucho para acoger a la gente que llega de muy diversas maneras y para que esa gente pueda hacer un proceso integral hasta poder

llegar a ser euskaldun. Hay muchos obstáculos en ese camino y mucha desinformación. Hay otras necesidades muy básicas que dificultan que esa gente se centre en el idioma. Yo creo que el idioma muchas veces se nos presenta como obstáculo. En cuanto se avanza un poco en los derechos del euskera, en la normalización del euskera -porque no hay que olvidar que es un idioma desnormalizado por una dictadura militar- entre otras cosas, siempre hay gente no euskaldun que se levanta ante ello, pensando que se les quiere imponer el euskera. Yo creo que el euskera no es una barrera, sino, todo lo contrario. Es una puerta que facilita mucho las cosas a quien lo aprende, sobre todo, cuando es alguien que ha venido de fuera. Una persona que viene de fuera y habla en castellano, se considera lo normal. Aprender castellano viniendo de Rumania o Senegal nadie lo ve como un esfuerzo extra, o un gesto hacia una cultura o un pueblo. En cambio a una persona que llega a Elgoibar desde Argelia, El Congo, Rumania y pide en euskera en una tienda o pregunta algo en la calle en euskera se le abren muchas puertas. Eso se toma como un gesto de respeto hacia la cultura de aquí, demuestra respeto y eso la gente lo valora. Eso facilita mucho a un emigrante, porque le da una comunidad, una pertenencia. Gracias a eso surgen amistades, puede surgir trabajo y eso te abre muchas posibilidades. Yo creo que el euskera tiene que estar en el centro de todas las políticas de integración, como puerta de inclusión.

La realidad de un emigrante es diferente dependiendo del pueblo al que llega. Tu familia llegó a Urretxu y tu infancia discurrió en una zona de mucha emigración, donde la mayoría teníais la misma realidad. La cosa cambió cuando os mudasteis. ¿Con qué te encontraste en Zumaia?

Zumaia era un pueblo mayoritariamente euskaldun, como no era Zumárraga. Zumárraga en veinte años pasó de tener 2.500 habitantes a tener casi 13.000. Los nativos pasaron a ser uno de cada cuatro, más o menos. Una avalancha, y una desorganización caótica total, en tiempos del dictador. La gente de aquí no podía hablar su idioma, no se podía estudiar en euskera, cualquier expresión cultural de aquí era reprimida sistemáticamente y en ese contexto llegan miles de personas a Euskal Herria sin ninguna planificación de integración. Zumárraga es consecuencia de

"He llegado a hacer cosas tan feas como rechazar a mis padres en público, por todos mis complejos internos. Yo me sentía euskaldun y no sabía cómo gestionar mi identidad"

esa gran chapuza cultural y lingüística, pero en Zumaia la realidad era muy diferente. A Zumaia no llegaron tantos inmigrantes, en gran medida, porque hasta allí no llegaba la línea del ferrocarril nacional. Por eso pueblos como Zumárraga, Altsasu, Barakaldo, Bilbao, Gasteiz o la zona de Iruña han sido pueblos de acogida de emigrantes. En los pueblos en los que la emigración se ha convertido mayoritaria, además del desgaste propio que ha sufrido el euskera por la dictadura, el emigrante no ha sentido necesidad de aprender el euskera. En esos sitios el que ha aprendido ha sido por propia voluntad, como lo hizo, por ejemplo, mi padre. El emigrante lo aprende mucho más fácil en los sitios en los que se habla el euskera, pero por desgracia, en general es minoría la gente que habla euskera y es por eso que el emigrante no siente la necesidad de aprenderlo. A mí me ocurrió eso mismo. Cuando no tenía necesidad hablaba en castellano, pero cuando vi en Zumaia que yo era el diferente, empecé a hablarlo.

No sólo empezaste a hablar euskera, si no que además, con 11 años te apuntaste a la bertso eskola y empezaste a cantar en plazas, pero siempre escondiendo tu identidad, hasta el punto de evitar a tus padres porque no querías que nadie te escuchara hablar con ellos en castellano.

Así es, yo he llegado a rechazar a mis padres por vergüenza. No quería hablar con ellos en castellano delante de los demás bertsoaris, porque yo nunca había escuchado hablar en castellano a ninguno de ellos, no había ningún bertsolari que fuera hijo de emigrantes y escuchando versos tampoco veía a nadie como yo. He llegado a hacer cosas tan feas como la de rechazar a mis padres en público, por todos mis complejos internos. Yo me sentía muy euskaldun y no sabía gestionar mi identidad. Me daban vergüenza mis apellidos, me daban vergüenza mi padre y mi madre, sus

orígenes... luego no sentía eso, yo les quería mucho y me gustaba ir al pueblo de mi padre, pero en el entorno euskaldun todo lo español se veía como si fuera malo y yo también lo veía así. Nosotros solíamos ir a echarles piedras a los niños erdaldunes, a los que no iban a la ikastola, y ellos nos las echaban a nosotros. Vivíamos en un ambiente enrarecido y un niño como yo no sabía gestionar los problemas que le creaba la identidad. Un día conseguí entender por qué yo era euskaldun y al mismo tiempo hijo de emigrantes, y ahí es cuando cambió todo.

El punto de inflexión llegó en 1997, cuando tenías 25 años.

Me clasificué para la final del campeonato de versos de Euskal Herria y eso para mí era un sueño hecho realidad. Es como para un niño que empieza jugando al fútbol con una cojera, llegar a jugar al Barcelona o bueno, aquí tendré que decir a La Real, aunque yo sea del Athletic. Para mí era un sueño cantar en el gran templo del euskera. Fui preparándome para ese evento cuando empecé a entender lo que yo era, y me dí cuenta de que si iba a cantar en ese templo del euskera era gracias al esfuerzo de mi padre y mi madre. Comprendí que yo nunca decidí ser euskaldun, eso lo decidieron ellos. Gracias al proceso de integración que llevaron ellos yo he podido llegar hasta donde he llegado. Entonces empecé a indagar en la historia de mi familia y entendí por qué tenían ellos esos valores, que ya los trajeron de allí. No eran valores adquiridos aquí, si no que allí también lucharon contra el Franquismo, y cuando llegaron aquí siguieron en ese bando, en el bando del euskera.

En ese momento todos tus complejos se convirtieron en orgullo.

Sí, pensé que era un regalo que me había hecho la vida, para poder darle la vuelta a la tortilla. Salí del armario delante de miles de personas en el Velódromo de Anoeta y es cuando la gente se enteró que yo era hijo de emigrantes, porque hasta entonces lo había tenido bien tapado. Maia parece euskaldun, así que, con eso lo disimulaba, camuflado debajo de la mesa.

¿Tus padres te han perdonado los feos que les hiciste?

Sí, y posteriormente han disfrutado mucho



conmigo. La abuela también todavía estaba viva, y lo vivieron todo con mucha emoción. Soy el primer euskaldun de la familia, y llegué cuatro veces a la final de bertsoaris. Eso para ellos ha sido motivo de orgullo. La verdad que todo lo que hago yo, mi familia lo vive con orgullo. Cuando saco un disco, doy un concierto, escribo un libro... siempre están ahí y es bonito.

Has solido decir que el euskera más bonito no es ni el de Tolosa ni el de Ondarroa, sino el de uno mismo.

Es un mensaje para los que están aprendiendo

el euskera, esos que piensan que lo hablan mal, que les da vergüenza... esos son la semilla del futuro del euskera, esas personas son la esperanza, el futuro y es lo más hermoso que le puede pasar al euskera. El euskera que habla esa persona que lo está aprendiendo con todos sus fallos y meteduras de pata, ese es el euskera más bonito que existe en todo Euskal Herria. Ese euskera lleno de esfuerzo por esa persona que lo intenta, esa persona es la que suma un hablante más al euskera. Cada persona de esas es una vida nueva para el euskera.

Estamos a las puertas del Euskaraldia, un ejercicio que tiene como fin cambiar las costumbres de comunicación al euskera. ¿Crees que ejercicios como este son necesarios para el euskera?

Sí, el euskera necesita todo. Necesita empujón, oxígeno, alicientes, dinero, energía... Todo lo que se le de al euskera, va a ser poco. Es un idioma minorizado que lo habla muy poca gente. En todo el territorio no llega al 15% de la población y tiene muchas carencias en su normalización. La supervivencia del euskera no puede basarse en el esfuerzo de cada uno y tampoco deberíamos resignarnos a pasar esa mochila histórica a cada nueva generación que apuntamos en el modelo D para que aprendan euskera, y luego no les estamos dando un país en el que se pueda vivir en euskera. Al final se convierte en un idioma de escuela, casi-casi impuesto, porque en muchos casos ni lo sienten, ni lo viven ni nada. Yo pienso que con pedagogía y valentía es necesario avanzar estructuralmente en las políticas del euskera. Hay que dar saltos cualitativos y gastar el dinero que haga falta en que las plataformas digitales estén en euskera, Netflix, los videojuegos, los estrenos de cine, las radios que tengan licencias para emitir aquí que tengan que emitir un porcentaje en euskera... Todo eso es necesario para que el euskera no sea una mochila ni una decisión que viene de una conciencia política, sino que sea un idioma que lo hablas y lo aprendes por inercia, como cualquier otro idioma del mundo. Debemos dar un salto y entrar en una segunda fase del euskera. Yo creo que esta vaca ya ha dado la leche que tenía que dar, pero para eso lo primero es hacer pedagogía, porque si no, enseguida saltan los prejuicios y los estereotipos. La única manera de normalizar

"La única manera de normalizar esto es conocernos mutuamente, los euskaldunes y los no euskaldunes, desmontando los estereotipos y hablando sinceramente"

todo es conocernos mutuamente, desmontando los estereotipos y hablando sinceramente.

¿Cómo podemos acercar al euskera a esa comunidad que no habla o no entiende el idioma?

Cuando programamos eventos en euskera, mucha gente que no habla el idioma se queda fuera y nunca traspasamos la barrera cultural. Tenemos que facilitarles el camino, porque somos nosotros los que les necesitamos, somos minoría y tenemos que ganar un futuro lingüístico. Tenemos que hacer lo que sea para ponerles lo más fácil posible. Lo ideal sería que llegaran a un país en el que cuando enciendan la televisión encuentren cuarenta canales en euskera, que en la Play Station de su hijo tengan los juegos en euskera, que el WhatsApp estuviera en euskera... Pero no encuentran eso, vienen a un desierto y si no les enseñamos donde está la fuente nunca llegarán a beber el agua del euskera. Hace falta tener empatía y comprensión con ellos, y también con los que vinieron en tiempos de la Dictadura, porque en aquellos tiempos venir de Andalucía o Extremadura, de pueblitos perdidos en la sierra, cuando casi ni existía la televisión pues era como venir de los países que vienen ahora. Muchos de ellos venían de lugares donde se había perdido una guerra, y llegaban a otro lugar donde también se había perdido una guerra, donde los propios habitantes estaban dejando que se perdiera su idioma por miedo, donde los propios euskaldunes se reían de los baseritarras por clasismo, porque no hablaban bien castellano. Llegaron a esa chapuza de postguerra y hay que tener empatía con aquella gente, porque no lo han tenido nada fácil. Hay que tener una mirada recíproca, en dos direcciones y nos conozcamos ambos, en lugar de echarnos cosas a la cara. Eso es un callejón sin salida y vamos a perder los pequeños.

Urriaren 21ean, 'Sexberdinak' antzezlana, Elgoibarren



Tantaka antzerki konpainiak *Sexberdinak* antzezlana taularatuko du gaur zortzi, urriaren 21ean, Herriko Antzokian, 19:00etan. Mireia Gabilondok zuzendutako lana da, eta Telmo Irureta eta Aitziber Garmendia ariko dira Nico eta Ana bi protagonisten azalean sartuta. Garun paralisia duen Nicoren eta amatasunaren gaiarekin topo egiten duten Anaren arteko kontakizuna da *Sexberdinak*. Garun paralsiagatik egunero-egunero topatzen dituen arazoak bistaratzen ditu Nicok, eta sexualitatea nahiz maitasuna nola sentitzen dituen ikustarazten du. Anak, berriz, hain bistakoak ez diren paralsiak erakusten ditu, hala nola amatasuna eta denboraren iragankortasuna, emakumezko baten bizitzan.

Maite Franco ipuin-kontalariaren saioa izango dute Mendaron, 27an

Mendaroko Udal Liburutegiak Maite Franco ipuin-kontalaria ekarriko du urriaren 27an Mendarora. *Dar-dar? Kar-kar* saioa emango du Francok, Arimen Gaua eguna gai hartuta. 4 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa dela zehaztu dute antolatzaileek eta liburutegian bertan egingo dela, 17:45ean hasita. Sarrera doan izango da.

Herriko artisauen azoka egingo dute bihar, zapatua, Maalako parkean



Elgoibarko zortzi artisauk parte hartuko dute bihar, hilak 15, Maalako parkean egingo duten azokan: Bitxi-Bitxi, Azpi's Bags, Magi, Ana Mosacula, Xarlem Creations, Zu + Ni, Amaluru eta Cynthia Pazmiño. 10:00etan zabalduko dute azoka eta 14:00ak arte egongo dira bertan artisauak beren eskulanak erakusten eta saltzen.

'Munduari itzulia 80 egunetan' ikuskizuna domekan, Elgoibarren



Julio Vernereren ipuinean oinarritutako *Munduari itzulia 80 egunetan* ikuskizuna emango du Glu Glu konpainiak, Herriko Antzokian, 16:30ean hasita. Sarrerak Herriko Antzokiaren webgunean ([herrikoantzokia.eus](#)) eskuratu daitezke, eta zapatuan lehiatilan bertan ere egon dira salgai, 18:15etatik 20:45erako ordutegian. Ordubeteko iraupena du saioak.

Torontoko literatura jaialdian parte hartu dute Danele Sarriugartek eta Uxue Alberdik



Toronto International Festival of Authors nazioarteko literatura jaialdian parte hartu dute Danele Sarriugarte eta Uxue Alberdi idazle elgoibartarrek, Miren Amuriza bertsolari eta idazlearekin batera. 2019ko udan Etxepare Euskal Institutuaren eskutik Edinburgoko liburu azokara egindako bidaiak eman die bidea Torontora joateko, orduan Edinburgoko azoka antolatzen jardun zen Roland Gulliverrek eskatuta joan direlako oraingoan Torontora. Edinburgon, Euskal Herria izan zen herrialde gonbidatua eta hainbat euskal idazle gonbidatu zituzten, tartean Uxue Alberdi eta Danele Sarriugarte. Alberdik bi kontutan parte hartu zuen. Batetik, Irlandako poeta batekin eta Edinburgoko musikari batekin zuzeneko emanaldi bat prestatu zuen, eta bestetik, bertsolaritza aurkezteko saioa eman zuten Sarriugartek eta biek. Alberdik bertsoan egin ahala Sarriugartek ingelesez interpretatu zituen zuzenean bertso haiek.

Torontoko hau urtero egiten den azoka da eta ezaguna da nazioartean, besteak beste, munduko literatura garaikideko idazlerik onenak bildu ohi dituztelako. Sarriugartek, Alberdik eta Amurizak *Bertsolaritza? The original poetry slam!* ekitaldian parte hartu zuten irailaren 28an eta irailaren 30ean, berriz, hizkuntza gutxituan idazteari buruzko *Mundua beste hitzetan: euskal idazleak elkarrizketan'* mahai-inguruan. Euskal literaturgintzaz eta euskaraz gain, hizkuntzaren botere eta sormenerako gaitasunaren inguruan aritu ziren, ahozko, idatzizko eta itzulitako hitzetan jarrita arreta.

Mendaroko bertso eskolan hasi dute ikasturtea



Hasi dute ikasturtea Mendaroko bertso eskolan. Momentuan zortzi ikasle daude izena emanda, baina Udaletik jakinarazi dute taldea osatu arte aukera dagoela oraindik izena emateko. Gehienez 10 lagunekoko taldea izango da, eta adin-tartea LH5-LH6ra mugatu dute. Eskolak Gaztelekuan izango dira, martitzenetan, 18:00etatik 19:00etara bitartean, eta besteak beste honakoak landuko dituzte: arrazoiak eta bestearen lekuan egoten ikastea, ahozko komunikazioa, eta herriko, eskualdeko eta euskal herriko kultur erreferentziak. Izena emateko: berdintasuna@mendaro.eus / 943 033 282.



'Fish tank' filma landuko dute Haizeak antolatutako bideo-forumean

Haizea emakume taldeak antolatuta bideo-foruma egingo dute gaur, barikua, 19:00etan hasita, Lilan. Andrea Arnoldek 2009an zuzendutako *Fish tank* filma aztertuko dute eta Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Mi Williams 15 urteko neska gazte bat da, bizitzaren aurka borrokatzen ari dena. Ez da ulertua sentitzen, gorroto ditu bere familia, ikaskide nerabeak eta inguruko ingurumena. Desilusionatuta eta haserre dago bizitzarekin. Amaren mutil-lagunak, Connorrek bere animaliarik gogokoena zein den galdetzen dionean, azkar erantzuten du: "Tigre zuria": Kaiolatuta dagoenean, egunero astintzen duen frustrazioa islatzen ditu erantzunak.

|| Sototik aterako dituzte aurten jostailuak Jolasaren Astean



Sototik kanpora aterako dute aurten jostailu erakusketa, lekukoa hartu baitio ekimen horri Jolasaren Asteak. Eguberrietako kanpainari begira sortu zuten bere garaian jostailu erakusketa, baina arduradunak konturatu dira jostailuak bisualki erakustera eta informazioa ematera soilik mugatzen zela ekimena. Horregatik aurten pauso bat gehiago eman nahi izan dute, eta jolasekin esperimenezko eta praktikan jartzeko aukera eskainiko diete familiei: "Jolasa ez da mahai jokoetara mugatzen. Jolasa gure bizitzan presente dago uneoro, edozein lekutan", esan dute arduradunek. Hori dela-eta, kalera eramango dute aurten jolasa, familiei jolasaren garrantziaz ohartarazteko eta jolasa euren bizitzetan non txertatu daitekeen azaltzeko. Beraz, jolasa bera erakustez gain, jolasak behar dituen espazio eta momentuak azalduko dituzte. Herriko txoko desberdinak erabiliko dituzte euren helburuetarako, eta orain arte gutxi erabili diren zenbait espazio bistaratuko dituzte, jolasaren mugak gaindituz eta erakutsiz edozein espaziotan jolastu daitekeela. Material didaktikoa jarriko dute gunen horietan, baina saiatuko dira erakusten materialik gabe jolastea ere posible dela.

Atxutxiamaiak, Udal Gaztelekuak eta Udal Ludotekak antolatu dute egitasmoa Udalaren babesarekin, eta herriko beste zenbait eragilek ere hartuko dute parte, besteak beste, Inazio Bereziartua musika eskolak, Egur arte tailerrak, Zubi Ondo xake taldeak eta Birakak. Hiru adin tarte bereiztu dituzte egitarauan, 0-5, 6-12 eta hortik aurrerakoak, eta helduentzako ekimenak ere egongo dira.

17 ASTELEHENA

17:00 Jolas eta kanten ikastaro praktikoak, euskaraz. Gurasoentzat. Udal Gaztelekuak. Izena eman behar da.

18 MARTITZENA

16:30 Bingo jokoa, San Lazaro egoitzan. HH5-LH6 bitarteko umeentzat. Udal Ludotekatik abiatuta. Izena eman behar da.

19 EGUAZTENA

16:30 Mahai-jokoak familian. HH5-LH6 bitarteko umeak dituzten familientzat. Udal Ludotekan.

17:00 Mahai-jokoen saioa. 2005-2010 urteen artean jaiotako nerabeentzat. Udal Gaztelekuak.

20 EGUENA

10:30 Jolas saioa, ZIG gelakoentzat. Udal Gaztelekuak.

17:00 Kanpo jokoak. HH5-LH6 bitarteko haurrentzat. Urazandiko parkean.

17:30 Jolas txokoak familian, 0-5 urte arteko umeak dituzten familientzat. Kalegoen plazan.

18:00 Bideo-jokoen gaineko solasaldia. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian. Euskaraz. Izena eman behar da.

21 BARIKUA

17:30 Jolas txokoak familian, 0-5 urte arteko umeak dituzten familientzat. Lekuederren.

17:30 Jolasa plazara! HH5-LH6 urte bitarteko umeentzat. Kalegoen plazan eta Bolatokian. Egur arte tailerra, Zubi Ondo xake taldea, Biraka eta Inazio Bereziartua musika eskolarekin elkarlanean.

20:00 Jolas gaubela. 2005-2010 urte artean jaiotako nerabeentzat. Udal Gaztelekuak.

22 ZAPATUA

18:00 Mariokart 8 Deluxe Nintendo Switch txapelketa. 2005-2010 urteen artean jaiotako nerabeentzat. Gaztelekuak. Izena eman behar da.

Informazio gehiagorako:

Atxutxiamaiak: 943 741 626

Ludoteka: 943 748 883

Gaztelekuak: 943 743 228

Espainiako ehiza txapelketa jokatzeko sailkatu dira Leire eta Arkaitz Egaña

Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketa jokatu zuten, aurreko domekan, Arabako Zanbrana herrian, eta azken urteetan gertatu den moduan emaitza onak eskuratu zituzten Elgoibartik eta Mendarotik joandako ehiztariek. Senior gizonetakoan Asier San Vicente arabarra gailendu zen, 9 eper ehizatuta. Julen Unzalu bizkaitarra sailkatu zen bigarren 6 eper eta 9 galeper ehizatuta; eta, Arkaitz Egaña elgoibartarrak osatu zuen podiuma, ehizatu zituen 7 eperrei eta 2 galeperrei esker. Hiru ehiztariok izango dira Euskadiko Ehiza Federazioaren ordezkariak azaroan jokatuko duten Espainiako Ehiza Xehe Txapelketako finalerdietan. David Conde elgoibartarrak ere hartu zuen parte Zanbranan jokatu zuten Euskadiko txapelketan, txapeldunorde izan baitzen urriaren 2an jokatu zuten Gipuzkoako Txapelketan. Euskadikoan 9. postuan sailkatu zen, bi eper ehizatuta. Senior emakumezkoetan Leire Egaña gailendu zen, bi



eper eta beste bi galeper ehizatuta. Datorren domekan, urriaren 16an, Muneran (Albacete, Espainia) jokatuko duten Espainiako txapelketan parte hartuko du. Beteranoen kategorian Jose Mari Mendizabal izan zen onena, 3 eper eta 2 galeper ehizatuta. Mauro Gonzalez ehiztari mendaroarrak gertu izan zuen garaipena, baina bigarren egin zuen azkenean, 3 eper eta galeper batekin, hau da, irabazleak baino galeper bat gutxiago ehizatuta.

Sakonetako mareartekora irteera egin dute Mendaroko eskola-umeek Arnorekin



Sakonetara, milioika urtetan higadura-agenteeek zizelkatutako ingurura, egin zuten mendi-irteera domekan Arno Guraso Elkartearen deialdira batu ziren 60 bat lagunek. Propio aukeratu zuten eguna, itsasbehera goizetik izan zelako domekan, eta marea biziak ere bazirenez, ikusgarriago topatuko zutelako ingurua. Gidari berezi bat ere

izan dute azkeneko irteera honetan: Nahia Mugertza biologoa. Haren laguntzaz behatu zituzten Sakonetan, metro gutxitako tartean, topa ditzakegun bi ekosistemak: mareartekoa eta itsaslabarretakoa, eta ekosistema horietako baldintza gogorretan biziraun duten animaliak eta landareak ikusteko aukera ere izan zuten.

Maite Maiora hirugarren postuan sailkatu da mendiko lasterketen Munduko Kopan

Hamahiru lasterketa eduki ditu 2022ko Skyrunners World Series Munduko Kopak, eta Gorbeia Suzien izan da azkenekoa. Urriaren 8an jokatu zuten Zeanurin hasi eta bukatu zen 33 kilometroko mendiko lasterketa. Aurrez jokaturako hamabi lasterketen puntu bikoitzak zeuden jokoan, eta hortaz, final modukoa zen. Maite Maiora sailkapen nagusiko laugarren postuan ailegatu zen azken lasterketara, 270 puntu pilatuta, emaitzarik onenak lortu dituen lau probei esker: Hochkonig Skyrace, Minotaur Skyrace, Comapedrosa eta Pirin Extreme. Mendarorarra bederatzigarren postuan sailkatu zen, baina jaso zituen puntuei esker postu bat aurreratu ahal izan zuen sailkapen nagusian, eta podiumean bukatu du Munduko Kopa, hirugarren postuan. Emakumezkoetan Noemie Vachon (3:49:37) frantziarra izan zen azkarrena Gorbeia Suzien lasterketan. Igorreko korrikalari Onditz Iturbe (3:49:53) sailkatu zen bigarren eta Lindsay Webster (3:51:26) antxitxikari kanadarra hirugarren. Hain justu, Webster da Munduko Kopako txapeladuna, 465 punturekin. Gorbeia Suzien zortzigarren postuan amaitu zuen Oihana Azkorbebeitiak eskuratu du sailkapeneko bigarren postua, 406 punturekin eta Maiora izan da hirugarren (350 puntu). Eneko Etxaniz gazte elgoibartarrak ere parte hartu zuen Gorbeia Suzien proban, eta bigarren denborarik onena egin zuen juniorretan.



Gipuzkoako lokotx biltze txapelketa irabazi du Jon Larrañaga mendarorarrak



Aiako probalekuan jokatu zuten domekan Gipuzkoako lokotx biltze txapelketa. Lau lagun lehiatu ziren: Mikel Osoro donostiarra, Gotzon Iruretagoiena *Izeta* zarauztarra eta bi mendarorak: Jon Larrañaga eta Iraitz Ferreira. Bi txandatan lehiatu ziren, eta Jon Larrañagak egin zuen laurretan denborarik onena: 6 minutu eta 48

segundo. Hala, iaz lortutako tituloari eutsi dio Larrañagak. Iraitz Ferreirak egin zuen bigarren, bere estreinako parte hartzean. 7:05eko denboran saskiratu zituen 50 lokotxak Ferreirak, hutsik egin gabe. Gotzon Iruretagoiena sailkatu zen hirugarren (7:14), eta Mikel Osorok egin zuen laugarren (7:30).

Mikel Perez de Obanosek irabazi du Idotorbeko Igoera

Mikel Perez de Obanos txirrindulari eibartarra izan zen azkarrena eguaztenean jokatu zuten Julian San Joanen Oroimenezko txirrindulari lasterketan. Irabazleak 13 minutu eta 46 segundoan osatu zuten Kalegoen plazatik Idotorbe gainerainoko ibilbidea. Hortaz, iaz baino minutu erdi gehiago behar izan zuen, Iker Eskibekek probako errekorra (12:48) ondu zuen urtean hirugarren postuan sailkatu baitzen Perez de Obanos, 13:11ko denborarekin. Atzetik aurrerako lasterketa eginez, proba hau bost alditan irabazitakoa den Iñigo Lariz elgoibartarra ailegatu zen helmugara bigarren postuan, 13:59ko denborarekin. Unai Mujikak

egin zuen hirugarren (14:16). Mujikak lasterketa buruan egin zuen igoerako zatirik handiena, metro batzuetako abantailarekin, baina azken kilometroan bere pareraino iristea lortu zuen Perez de Obanosek, eta azken zatian atzean utzi zuen. Era berean, Larizek ere azken metroetan gainditu zuen Mujika, ikusleak pilatzen diren igoerako azken metroetan, hain zuzen ere. Guztira 27 lagunek hartu zuten parte Lagun Taldea txirrindulari eskolak denboraldiari amaiera emateko antolatzen duen proban. Emakume bakarra lehiatu zen, Maite Urteaga zumaiarra (19:29). Sailkapen osoa, bideoa eta argazkiak barren.eus webgunean.



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo etxe, bulego zein lantegietan garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **642 578 943**

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan jarduteko prest. **643 977 786**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. **642 578 943**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. **632 915 336**

Esperientzia handia duen erizain laguntzailea eta soziosanitarioa lanerako prest. **608 897 639**

Astelehenetik ostiralera, 15:15etik 19:15era edo 20:15era, HH, LH, DBH eta Batxilergoko eskola partikularrak emateko prest gaude. **688 610 755**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Papelak legez ditut. **641 359 024**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Prestutasun osoa: etxeko langile moduan, asteburuetan zein orduka. Erreferentzia onak dauzkat. **632 029 884**

Adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako, zerbitzari edota sukalde laguntzaile lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. **622 023 451**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Orduka edo jaiegunetan ere egingo nuke lan. Esperientzia daukat. **652 020 464**

Eskaintza

Batxilergoko lehen mailako ekonomia eskola partikularrak jasoko nituzke. **679 584 624 / 627 448 156**

GARAJEAK

Marradun garajea alokatzen da Arregitorre 6an. **685 764 879**


OSPAKIZUNAK

1950ean jaiotako kinto-ospakizuna urriaren 22an. 13:00etan bilduko dira Kalegoen plazan talde-argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, Ibai Ondo erretegi. 14:30ean bazkaria, Sigma jatetxean. 70 euro ordaindu behar dira urriaren 20rako Kutxabaneko zenbaki honetan: 2095 5036 50 9121852949. Diru-sarrerara egitean, izen-abizenak adierazi behar dira.

1948an jaiotako elgoibartarrek ospakizuna egingo dute urriaren 22an. Hitzordua 12:00etan, Kalegoen plazan. Interesdunek 65 euro sartu beharko dituzte urriaren 20a baino lehen Laboral Kutxan. ES 1230350007250071142599

BESTELAKOAK

Kotxerako arrapala tolesgarria saltzen da. **659 329 118**



Whill C modeloko aulki elektrikoa saltzen da, gutxi erabilia eta oraindik bermea indarrean. **659 329 118**





Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enplegatuaren Erakundeak
Luzarrak Kontrolatzen



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679

rosapf@telefonica.net

Komunitatetik kanpoko pertsonak jabeen batzar batean parte hartu eta erabakiak har ditzaketen jakin nahi nuke.

Jabeen Batzordera jabeak eta jabeak ez diren beste pertsona batzuk ere joan daitezke, baina beste horiek - teknikariak eta- aholkularitza ematera joango dira. Halaber, ohikoa da jabeen batzar batean jabe batek zenbait jabe ordezkatzeko. Kasu horretan, jabe batek batzar batean aurkezten dituen ordezkariak kopuruan ez dago gehieneko kopuru bat. Beraz, Jabeen Batzorde bateko laguntzaile batek jabe baten edo batzuen izenean eta ordezkari gisa eman dezake botoa. Nolanahi ere Jabeen Batzordeari ordezkari-izadzia aurkeztu behar zaio. Legeak bi ordezkari-izadzia aurreikusten ditu, legekoa eta borondatezkoa. Legezko ordezkari-izadzia arau batek ezartzen duena da, eta idatziz egiaztatu behar da beti. Borondatezko ordezkari-izadzia jabe batek bere konfiantzazko edozein pertsonari ematen diona da. Kasu honetan, legeak ezartzen du nahikoa litzatekeela jabeak berak sinatutako idazki bat. Jabe batek beste bati ematen dion ordezkari-izadzi horrek ez du zertan botoa emateko jarraibideak adierazi. Izan ere, boto-eskuordetza bat izan daiteke, erabat zuria, hala badagokio, geure irizpidearen arabera joka dezagun.

GOMENDIOA: jabeak ematen diren kasuan, legezko jabeak horietako bat ordezkari izendatzea eskatzen du, botoa zatituz baina. Usufuktuaren kasuan, adibidez, herentziak direnean, bertaratzeko eta botoa emateko eskubidea jabe soilari dagokio, baina horrek usufuktuari eskuordetzeko aukera ere badago.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.




Zorionak, **Libe**, gaur 8 urte bete dituzulako. Muxu eta besarkada handi bat familiakoentz partez.



Ez, ez gara zutaz ahaztu. Astearteko partez, zorionak, **Luken!** Muxu potolo bat Apraizko denon partez. Txokolatada noiz da? Gu prest joateko!



Zorionak, **Naroa**, urriaren 18an 7 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat familiakoentz, eta bereziki, ahizpa Malenen partez.



Zorionak aitxitxa **Txomin** eta amama **Luisa**, zuen 61. eztei urteurrena izan zelako. Segi horrela urte askoan! Muxu handi bana. Askok maite zaituzten etxeko guztien izenean.

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN Alta Agirre Kullurgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astleheneetik ostiraldeak: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldindegiz zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

OSTEOPATIA
Victoria Iraegui

Osteopata kolegiatua: 0299 zk.

TEKNIKAK: Pediatrikoak / Egiturazkoak / Garezurrekoak / Erraietakoak / Somato-Emozionalak / Posturologia/ Drainatze linfatikokoak

Zer tratatzen du osteopatiak teknika hauek erabilia?

- Ziatika, lunbalgia, drosagiala, tortikolia, zartada zerbikala...
- Estresa, prozesu depresiboak.
- Baraileko oklusioa, brusismoa, akufenoak, bertigoak, migrainak, hortzetako oklusio txarra eta estabismoa.
- Kirol-lesioak, bihurrituak, luxazioak, muskulu-kontrakturak.
- Erditze aurrekoa, haurdunaldia eta erditze ondokoa.
- Mastektomiak, orbainak eta kirurgia osteko edemak
- Digestio-, urologia- eta neurologia-arazoak.

HAURTZOETAN:
Insomnioa, bularreko haurraren kolikoa, gehiegizko negarrak, arreta-arazoak, estrabismoa...

659 332 423 - 943 740 770
victoriairaegui@gmail.com

Pedro Migel Urruzuno 21 behea (Urnobitza alboan)

EXPRESS ESKAINTZAK!

LG F4WV3009S6W
ARROPA GARBIGAILUA

A B

479 €

- 9 kg karga
- 1.400 b/min
- 14 programa
- Lurrun-programa
- Amaiera geroratu 3-19H

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendakot prezioak. Produktuak agortu arte.

14 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

19:00 Bideo foruma: 'Fish Tank'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

15 ZAPATUA

10:00 Elgoibarko artisau feria. Artaldeak antolatuta, Maalako parkean.

16 DOMEKA

16:30 Antzerkia: 'Munduari itzulia 80 egunetan'. Herriko Antzokian.

18:00 Erromeria, Mendaron. Eingo taldearen eskutik.

18 MARTITZENA

18:00 Literatura sorkuntza. Jasone Osorok emango du, Lilan. Ele bietan izango da. Izena emateko Pitxintxura jo edo haizeataldea@gmail.com helbidera idatzi behar da.

18:30 Hitzaldia: Bingen Zupiria Gorostidi Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua eta Gobernu bozeramailea. EAJ-k antolatuta, kultura eta hizkuntza politika ereduari buruzko hitzaldia emango du. Aita Agirreko areto nagusian.

19 EGUAZTENA

18:00 Ikastaroa: 'Zure burua maitatu, zaindu eta izan zoriotsu'. Loredi Salegik emango du, Lilan.

20 EGUENA

18:30 'Amatu' liburua aurkeztuko du Maite Lopez de las Herasek. Lilan.

21 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Sexberdinak'. Herriko Antzokian.



I.URTEURRENA
Pako Kortaberria Unzueta
"Sagartei"

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriaren 15ean, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.

Beti gure bihotzean.



III.URTEURRENA
Jesus Mari Ansuategi Cobo

2019ko urriaren 15ean hil zen, 54 urte zituela.

**Joan zinen gu hemen utzita,
baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.**

Zure familia



Zinea

(Herriko Antzokian)



'La vida padre'

14 barikua: 19:00

15 zapatua:

19:00 / 22:15

16 domeka: 19:00

17 astelehena: 21:00

'Lunana,

un yak en la escuela'

(Ongarri zinekluba)

19 eguaztena: 21:00

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

URRIA

14 BARIKUA

15 ZAPATUA

16 DOMEKA

17 ASTELEHENA

18 MARTITZENA

19 EGUAZTENA

20 EGUENA

21 BARIKUA

Egunez

■ Fernandez

Yudego

Yudego

■ Oruesagasti

Barrenetxea

■ Ibañez

Garitaonandia

Arriola

Iluntzean

Barrenetxea

Yudego

Yudego

Yudego

Barrenetxea

Barrenetxea

Garitaonandia

Arriola

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106



Lagunak Textil Hogarren, aurtun,
berogailuan aurretzen lagunduko dizuten oherako arropa aukera zabala,
zatoz eta bisita gaitzazu!

- ❖ %100 kotoia duten franezlako edo koralinazko izarak.
- ❖ 79€tik aurrera lumaz betetako nordikoak.
- ❖ Sherpa edredoiak, pisu gutxikoak eta bero handia ematen dutenak.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Manu Sanchez



Izaro Etxegibel

"Begiratzeko ez badiegu, ez gaituzte ikusten? Ikusten ez duguna ez da existitzen?"

Gaueko hamarrak, hogeita bost gradu, lore usaina, manga motzak soinean, eta ahots bat entzuten genuen gertu kantuan. Tabernako atetik zetorren soinua, hortzik gabeko aho hartatik; alkandora koadroduna, luze-luze ilea, beltza, atzerantz bildua. Ez zuen kontzerturik emango gau hartan, ez zirudien benetako abeslaria. Gurea ez zen hiri bateko terraza batean ari ginen afaltzen: olagarroa, aguakatea, patatak; oporretan. Hasi zitzaigun hurreratzen abeslaria eserita geundenoi, gitarra eskuan, ortozik hankak, mahairik mahai. Ondo entzuten genuen haren kantua, zeharretik begiratzeko, ordea. Diru eske zebilen. Inork ez zion aurpegira begiratu nahi, inork ez zion arropa zikina usaindu nahi.

Gure hizkuntza ulertuko ez zuela jakitun, gutako batek esan zuen: *ez begiratu, ez begiratu!* Kontatu zigun, barre artean, gogoratzen zuela, umetan, aitzak nola beti esaten zien ez begiratzeko halakoetan. Begiratzeko ez badiogu zer gertatzen da? Zer uste dugu, ez gaituzte ikusiko? Ez

begiratzeko zer dakar, guk ez ikustea edo gu ez gaituzte ikusi? Eskolan, irakasleak boluntario bat eskatzen zuenean, behera begira jartzen ginen, edo idazten hasten. Begiratzeko badiogu, ikusiko gaitu? Edo, nola da hori?

Eskale asko bizi zen hiri hartako kale bazterretan: *ez begiratu, ez begiratu!*

Praka gorriak eta alkandora horia jantzita ikusi genuen gizon bat, gozotegian pastelak erosten: *ez begiratu, ez begiratu!*

Hondartzako bidean zegoen semaforo gorrian, kleenexak saltzera etorri zitzaigun neska gazte bat leihora: *ez begiratu, ez begiratu!*

Begiratzeko ez badiegu, ez gaituzte ikusten? Ikusten ez duguna ez da existitzen? Nahi duguna bakarrik ikusten dugu? Nahi dugunek baino ez gaituzte ikusten?

"Ez begiratu" esaten dugu, ez ez ikusteko, ezkatuzteko baizik, besteek ikus ez gaituzte, ikusi, ikusi ditugu eta jada, begiratu ez arren.

Bittori Maiza Otsagabia

2022ko urriaren 6an hil zen, 80 urte zituela. Urriaren 15ean, 19:00etan, oroimen meza izango dugu Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Familiaren partetik mila esker bihotz-bihotzez agurrean lagundu gaituzuen guztioi.

***Izan zarelako gara,
garelako izango dira.
Maite zaitugu.***



Etxekoak



I.URTEURRENA

Maria Carmen Altuna Atxaga

2021eko urriaren 17an hil zen, 72 urte zituela. Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, domekan, urriaren 16an, 12:00etan, Urrestillako Jaunaren Gizakundeko elizan. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zinen,
baina betiko izango zara
gure bihotzetan.***



Etxekoak

***Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
eguna emango genuke
zuekin kanta ta dantza.
Azkarregi joan zineten
hori da egia latza,
utzitako hutsuneak
kolpatu zigun bihotza.
Zenbat asmo, zenbat amets
joan den zuekin harantza.
Ez ditugu inoiz ahaztuko
zuen irria ta poza.
Alkarrekin zaudetenik
ez degu egin zalantza;
besarkada handi bana ta
ez utzi inoiz oholta.***



Angelo eta Abel Iriondo

Kultura eta hizkuntza politika eredua

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua eta
Gobernuaren bozeramailea

ELGOIBAR

Aita Agirre kulturguneko areto nagusian
Urriaren 18an, asteartea, 18:30ean